

{ koaderno } Kattalin Miner

Aitaren Eguna

Zubiaz luze eta zabal gozatzen zabilzan honetan agian pasa egin zaizu hain ongi koa-
dratu dizun jai egun honen zioa. Izan ere,
San Jose delakoak edo Aitaren Egunak eman
digu opari lanaldi itogarritik ihes egiteko
aukera.

Badira gorrotagarriak zaizkigun jai egun arrotzak. Argi
sentitzen dugu Espainiako Konstituzioari edo Hispanita-
teari uko egiteko beharra, eta, egun horiek inposatuak
zaizkigunez, zapalduaren sentsazioa sentitzen dugu. Ai-
taren Eguna delakoa, baina, besterik gabe pasa ohi da.
Agian horregatik dugu beharrezkoa atzera begirada bat,
jai egun honen jatorriari erreparatu eta berauk barnebil-
tzen duenak ere barrenak aztora diezazkigun.

Hain zuzen ere, Aitaren Eguna Mendebaldeko hainbat
herrialdetan ospatzen da (eta zen), inon ez ordea mar-
txoaren 19an, inon gutxi jai egun ofizial kategoriarekin.
Izan ere, jai egun honen pri-
bilejioa frankismo garaiko
andereño bati zor diogu.
Hain zuzen ere, 1948an Valle-
casen umeeekin eskolan Ama-
ren Egunerako eskulanak
egiten zituztela eta, aita je-
loskor batzuk (gaur egun Li-
latoian parte hartu nahi du-
ten gizon jator horien
aurrekariak-edo izango zire-
nak) kexaka joan zitzaizkion,
esanez ea zergatik ez zuten
haiek eskulanik jasotzen
inoiz, haien aitatasun eredu-
garriaz harro sentiaraziko zi-
tuenak.

Historiara Nely ezizenez pasa zen andereño berdinzale
horrek, beraz, Aitaren Eguna ospatzea pentsatu zuen, eta
frankismo garaian hain modan zegoen katolizismo haize
batek jota-edo, pentsatu zuen zein egun aproposa zen
San Joserena, hain zuzen, Nazareteko Jesus beraren aita
lurtiarra gogoratzen zen eguna.

Orduz geroztik, hautsontziak egin izan dituzte eskole-
tan, eta Galerias Preciadok bizarra egitekoak eta erre-
minta kaxak jarri zituen egun horren bezperetan erakus-
leihoetan. Esan genezake, halako ekintza ekitatibo baten
ostean, espainiar Estatuan berdintasunak aurrerapauso
izugarria egin zuela, egun dugun panorama parekidea
lortu arte.

Ironia alde batera utzita, ikus dezakegu, bestalde, nola
gizonei zuzentzen zaien eta gizonek zuzentzen duten

edozeren gisan, egun San Jose jai eguna dela, eta, Ama-
ren Eguna, maiatzaren 2a, Corte Inglesaren eguna beste-
rik ez. Kasualtaterik ez gurean. Hala nola, San Jose egu-
nak katolizismo ustelduenaren oinarria du, eta, Amaren
Eguna, bueno, kolore arrosazko eguna da.

Jai egun arrotzei intsumisioa egiten diegun honetan,
edo egiten dihardugun honetan, oraindik ez dut entzun
jai egun honekin harrabotsik altxa denik. Izan liteke
agian, aita eredugarri eta maitagarriak dituzuelako, jato-
rrak eta guapoak, amari etxeko lanetan laguntzen diete-
nak (irakurri bedi bitan esaldi hau), eskolara bila ez ezik,
asteburuetan partiduak ikustera joan izan direlako, eta
igandeetan, o, igandeetan, mila bider eskertu behar zi-
tzaien paellak egiten zituztelako.

Hala bada, barkatuta zaudete, ez bada noski, jatorri ka-
toliko-frankista-kapitalistak kirrinkatzen zaituztelako,
eta noski, ezkertiar-laiko-feminista izanda onartezinak

Gizonei zuzentzen zaien eta gizonek
zuzentzen duten edozeren gisan, egun
San Jose jai eguna da, eta, Amaren Eguna,
maiatzaren 2a, Corte Inglesaren eguna
besterik ez. Kasualtaterik ez gurean

iruditzen zaizkizuelako balio horiek unibertsalizatu
nahiak.

Edozein kasutan, ez naiz ni burukomin politikorik ga-
be disfrutatzeko aukera zenuten azken zubia zapuztera
etorriko, segi hanka zabalik kafea hartzen; gehiegi maite
ala ez, ezagutu edo ez, izan edo absentziaz bizi, ez ahaztu
aitari muxu handi bat ematea, bularra puztu dezan, eta
pentsa dezagun dena kasualitatez beteriko erabaki poli-
tikoen eragina dela, eta ez inolako ordena heteropatriar-
kal katoliko matxista batena. Bihar, bestalde, esan deza-
kegu, aitaren abizena jarriko diogula alabari
ohiturengatik, herentziatan dauden odolezko klausula
primojenitoak ez dutela garrantzirik, eta joder, jai egu-
nak jai egun direla, ez duela axola zergatik.

Bitartean besteok ere hala jarraituko dugu aitari eske-
rrak ematen; baina zor zaizkionak baino ez. •